

TABAKISMO PASIBOA EDO BIGARREN ESKUKO TABAKISMOA

ERRETZEN ARI DIRENEN ESPAZIO BEREAN DAUDENEI ERASATEN DIE

- **Erretzaileek botatzen duten kea arnastu beharra, eta**
- **zigarro-punta, puru edo pipa piztu batetik datorren kea arnastu beharra**

HIRUGARREN ESKUKO TABAKOA (HET):

ZIGARROA ITZALTZEN DUGUNEAN GERATZEN DEN KUTSADURA KE-HONDARRA ITSATSITA GERA DAITEKE:

- **hautsetan eta azaleretan (lurrean, hormetan eta abar)**
- **altzarietan, alfonbretan,**
- **iletan eta arropatan,**
- **automobileko eserlekuetan.**



LAUGARREN ESKUKO TABAKOA (LET)



ZIGARROKINEK ERAGINDAKO KUTSADURA DA, 8 ETA 12 URTE BITARTEAN IRAUN DEZAKE ERABAT DESKONPOSATZEKO

- **Hondartzetan egoten den hondakinik ohikoena.**
- **Errepide eta kaleetan biltzen den zaborraren % 25-50 mutxikinak dira.**
- **Konposatu minbizi-eragileak, pestizidak eta nikotina direla-eta, mundu mailan tabakoa da prebenitu daitekeen heriotza-kausa nagusia; bada, mutxikinak osagai horiek denak ditu.**
- **Ur-ekosistemetan metal astunak eta beste toxiko batzuk askatzen dituzte.**
- **Arazo ekonomikoa ere bada, erkidegoari dirutzak joaten baitzaizkio garbiketari.**